



AZTERKETAK 32

# Hego Euskal Herriko 2015erako aurrekontuen balorazioa

2015eko MARTXOA

**ELA**  
EUSKAL SINDIKATUA

 MANU  
ROBLES-ARANGIZ  
INSTITUTUA

# Hego Euskal Herriko 2015erako aurrekontuen balorazioa

<b>0. Sarrera</b> .....	<b>3</b>
<b>1. Alderaketa nazioarte hurbilarekin</b> .....	<b>3</b>
1.1. Oroz gain, zor publikoa ordaintzea .....	3
1.2. Defizita osasun publikoan, gure inguruko herrialdeekin alderatuta .....	8
1.3. ELGEko gasturik txikiena hezkuntzan .....	9
<b>2. EAEko Aurrekontuak</b> .....	<b>11</b>
2.1. Zerga politika aldatzeari uko egitea, eta aurrekontu diziplina onartzea .....	11
2.2. Behera egin du Eusko Jaurlaritzaren ekonomia arloko gastu publikoaren pisuak .....	11
2.3. Osasun arloko gastu publikoa murriztu da .....	12
2.4. Hezkuntza arloko gastu publikoa jaitsi da .....	13
2.5. Etxebizitza arloko gastua amildu da .....	14
2.6. Gizarteratze gutxiago eta bateragarritasun gutxiago .....	15
2.7. AHT, murrizketen artean salbuespena .....	16
2.8. EAE: ondorioak .....	16
<b>3. Nafarroako aurrekontu proiektua</b> .....	<b>17</b>
3.1. Aurrekontuak berriz ere luzatuak .....	17
3.2. Gobernuak murrizketei eutsi egin nahi die .....	18
3.3. Ekonomiaren bilakaera eta murrizketak .....	20
3.4. Gastua departamentuz departamentu .....	20
3.5. Osasun arloko gastua .....	21
3.6. Hezkuntza arloko gastu publikoa .....	22
3.7. Gastua AHTean .....	23
3.8. Gizarte politika .....	23
3.9. Nafarroako 2015eko aurrekontu proiektua: balorazioa .....	24
<b>4. Nafarroako zerga erreforma</b> .....	<b>25</b>
4.1. Erreforma fiskalaren neurri nagusiak .....	25
4.2. Erreforma fiskalaren gaineko balorazioa .....	27

Eusko Jauriaritzako eta Nafarroako Gobernuak 2015eko aurrekontuek bide ezberdina egin dute, EAEkoak onetsi baitira; ez, ordea, Nafarroakoak. Hala ere, bi aurrekontuek antza handia dute, hala nola gastu publikoa murriztu izana eta zorra ordaintzea gastu sozialaren aurretik jarri izana.

Behin eta berriz esan dugu hala Urkulluren Gobernuak nola Barcinarenak tarte handia dutela gastu publikoa handitzeko; esate baterako, gastuan dagoen aldea gero eta handiagoa da gure inguruko herrialdeekin alderatuta, baina horixe da krisiari bidezko irtenbide soziala emateko modu bakarra, krisia babes soziala suntsitzen ari baita.

Txosten honetan gastu publikoaren bilakaera izan dugu aztergai, eta nazioartean gertatzen denarekin alderatu dugu. Horrek agerian jartzen du zer-nolako lehentasunak dituzten egiazki Hego Euskal Herriko Gobernuak. Horixe da Gobernuen politika aztertzeke modu nagusia, hau da, aztertu dugu zertara bideratu duten nagusiki diru publikoa, hots, oinarritzko beharrak asetzera edota zorra ordaintzera. Arrazoi hori bera dela eta, Nafarroako Gobernuak Aurrekontu Proiektua ere izan dugu aztergai, hau da, Parlamentuak atzera bota zuen huraxe.

## 1. ALDERAKETA NAZIOARTE HURBILAREKIN

### 1.1. Oroz gain, zor publikoa ordaintzea

Hego Euskal Herriko Administrazioek gastu publikoa nabarmen murrizteko arrazoi nagusietako bat izan da gero eta diru gehiago erabiltzen dutela zor publikoa ordaintzeko.

Lehen lehentasuna hori izanik, gero eta diru gutxiago geratzen da egiazko gastu publikora bideratzeko.

#### *1.1.1. EAEko zor publikoa*

Zor publikoa ordaintzeko gastua era esponentzian igo da azken urteotan, bai amortizazioak (aurrez mailegutzan jasotako kapitala itzultzea), bai interesak igo egin direlako. 2009ko 83,6 milioi euroko dirutza hura ia 12 aldiz halakoa da gaur egun, eta 2015ean 989,4 milioi euro bideratu dira zorra ordaintzera.


### Eusko Jaurlaritzaren urteko gastua zor publikoan (milioika euro eta %/gastu guztia). 2009-2015

	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015
Amortizazioa	61,2	123,7	169,5	174,5	199,9	469,5	711
Interesak	22,5	74,3	143,4	190,3	213,0	249,8	278,4
Gastua Zor P.	83,6	198,0	312,9	364,8	412,9	719,3	989,4
Gtu %. Zor./guztia	% 0,8	% 1,9	% 3,1	% 3,7	% 4,5	% 7,3	% 9,6

*Iturriak: Eusko Jaurlaritza, Eusko Legebiltzarra*

Grafikoaren arabera, argi dago gastu publikoan izandako murrizketa askoz ere handiagoa dela zorraren ondorioz (zor hori bi lerroen arteko eremuan islatzen da). Hau da, Eusko Jaurlaritzak egiazki eskura duen gastu publikoak behera egin du: 2009an, 10.170.9 milioi eurokoa izan zen (BPGaren % 15,3), eta 2015ean berriz, 9.299 milioi (BPGaren % 13,6); hau da, 871 milioi eurotan jaitsi da.

### Eusko Jaurlaritzaren gastu publikoa zor publikoarekin eta zor publikorik gabe (%BPG). 2009-2015




*Iturriak: Eusko Jaurlaritza, Eusko Legebiltzarra, Eustat*

Halaber oso era nabarmenean igo da zorrak Gobernuaren gastu guztian izan duen pisua, 2009an % 0,8 izan baitzen, eta 2015ean, aldiz, % 9,6. Hau

da, Eusko Jaurlaritzako gastuaren ia % 10 zor publikoa ordaintzera bideratuko da 2015ean.

Azken urteotan, zorra handitu izanaren ondorioz, zor bizia (hau da, Gobernuaren zorraren zenbateko osoa) maila garrantzitsu batera iritsi da, 2. grafikoan ageri den bezala. Zehazki, zor bizia BPGaren % 3,1 izan zen 2009an, eta, BPGaren % 12,2 izatera igaro da 2015an, eta hurbildu da Eusko Jaurlaritzak urterako duen gastu osoaren pisura.

### Eusko Jaurlaritzaren zor bizia (%/BPG). 2009-2015



*Iturriak: Eusko Jaurlaritza, Eusko Legebiltzarra, Eustat*

Agintean daudenek oso maiz argudiatzen dute gastu soziala handitu izanak eragin duela zor publikoa handitu behar izatea, baina hori ez da egia.

Ikusi dugun bezalaxe, Eusko Jaurlaritzaren zorra ez da handitu gastua handitu izanaren ondorioz (murriztu baita), baizik eta foru ogasunen diru-bilketa nabarmen murriztu delako, eta esan dezagun nabarmen murriztu dela, zerga-politika bidegabea izan delako. Horrela, diru-bilketa gainbehera etorri izanaren ondorioz (2009an, batez ere), urtez urte eta 2013ra bitarte, 2008an baino askoz ere diru gutxiago bildu da; 2008ko urtealdiko diru-bilketa 2013ra bitarte mantendu izan balitz, 7.037 milioi euro gehiago bilduko ziratekeen. Horrela, Eusko Jaurlaritzaren zorra izugarri handitu da, gastu publikoari nola edo hala aurre egin ahal izateko. Orain, Eusko Jaurlaritza behartua dago zor hori ordaintzera, ordaintzen aritu da, eta hurrengo urteetan ere ordaintzen jarraituko du. Eta horretarako, gastu soziala murriztuko du. 2014. eta 2015. urtaldietarako diru-bilketen arloko aurreikuspenak 2008ko diru-sarreraren mailara iritsita ere, Eusko Jaurlaritza jada zorraren gupilean sartu da.

**Zerga hitzartuen bidezko diru-bilketa (milioika eurotan).  
EAE, 2008-2015 (\*)**

2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015
12.834,2	10.792,1	11.700,0	11.480,9	11.408,2	11.752,1	12.402,0	13.080,0

(\*) 2014. eta 2015. urtealdiko zenbakiak aurreikuspenak dira

*Iturriak: Eusko Jaurlaritza, Euskal Finantzen Kontseilua*

Ondoren ikusiko dugun bezala, bateragarria izan da zor publikoa handitzea eta gastua hainbat arlotan oso nabarmen murriztea, hala nola osasunean, hezkuntzan eta etxebizitzan. Hau da, Eusko Jaurlaritzaren zorra ez du gastu sozial handiagoak eragin (aitzitik baizik), zerga politika bidegabe eta ez-legitimoak baizik.

*1.1.2. Nafarroako zor publikoa*

**Zor publikoa**

Nafarroako kontuetan igoerarik handienetakoa izan duen gastuetako bat zor publikoa izan da. Funtsezko gastuak murriztu diren bitartean, 2015ean diru publikoen artetik 436,4 milioi euro bideratuko dira zorra ordaintzera. Hau da, 2014an baino 46,9 milioi gehiago (% 12 gehiago). 2010az geroztik, gastu hori 292,3 milioi eurotan igo da (144,1 milioitik 436,4ra), hau da, % 202,8 egin du gora. Horrela, zor publikoa gastu guztiaren % 3,4 izatetik (2010) % 11,6 izatera igaro da 2015ean.

Hori BPGaren % 2,3 izan da 2015ean; 2014an baino 0,2 puntu gehiago eta 2010ean baino 1,5 puntu gehiago.

**Gastua zor publikoan (milioika eurotan) 2010-2015**

2010	2011	2012	2013	2014	2015
144,1	148,1	199,4	299,4	389,5	436,4
% 0,8	% 0,8	% 1,1	% 1,7	% 2,1	% 2,3

*Iturria: Nafarroako Gobernua, IEN*

Gastu publikoa hein batean zorraren interesari doakie, bai eta zorrarekin zerikusia duten gastuei ere. Zehazki, 2015ean 119,2 milioi euro gastatuko dira zorraren interesetan nahiz gastuetan, hau da, eguneko 326.600 euro gastatuko dira, finantza-entitateei interesak eta gastuak ordaintzeko. 2010etik hona, gastu hori ia hirukoiztu da, 40,9 milioi eurotik 119,2 milioi eurora igaro baita.

Nafarroako Gobernuak obra handiak ordaintzeko erabili duen bide bat itzalpeko bidesaria delakoa da (Nafarroako ubidea edota A-21 nahiz A12 autobiak). Hau da, enpresa pribatu batek obra eraiki eta finantzatzen du, eta Gobernuak obra horren erabilpena ordaintzen du. Horrela, administrazioa ez da zorpetzen epe laburrean eta kontuak mozorrotzen ditu, baina epe luzera gastua askoz ere handiagoa da.

2015ean 73,5 milioi euro erabiliko dira itzalpeko bidesaria ordaintzeko, hau da, 2014an baino 8,1 milioi gehiago. 2010etik hona, gastu hori 29,5 milioi eurotan igo da (44 milioitik 73,5era).


#### **Gastua itzalpeko bidesarian (milioka eurotan) 2010-2015**

<b>2010</b>	<b>2011</b>	<b>2012</b>	<b>2013</b>	<b>2014</b>	<b>2015</b>
44,0	49,9	67,4	67,0	65,4	73,5

*Iturria: Nafarroako Gobernuak*

Hortaz, zor publikoa eta itzalpeko bidesariaren gastua handitu direnez, gero eta diru gutxiago dago gastu publikoaren gainerako ataletara bideratzeko. Horrela, 2015ean, gastu publikoa, behin zor publikoan eta itzalpeko bidesarietan egingo den gastua kenduta, 3.239,4 milioi euro izango da, hau da, 2010ean baino 546,7 milioi euro gutxiago.

### Gastua zor publikoan eta itzalpeko bidesarian (milioika eurotan) 2010-2015



*Iturria: Nafarroako Gobernua*

#### 1.2. Defizita osasun publikoan, gure inguruko herrialdeekin alderatuta


Inguruko estatuarekin alderatuta, osasun publikoan dagoen gastu defizita izugarria da. ELGEren azken datua 2012koa da; urte hartan, batez beste, BPGaren %6,7 gastatu zen osasunean. Horrek esan nahi du osasuneko gastu publikoak %31,4 igo beharko lukeela HEHn, osasunean batez beste egiten den gastuaren mailara iristeko. 2012an, osasun gastua BPGaren %5,1 bat izan zen HEHn, hau da, ELGEko batez bestekoa baino 1,6 puntu gutxiago.

EAEko gastu publikoa ELGEko txikienetakoa da (eskura dagoen informazioaren arabera, Polonian, Estonian edo Turkian bakarrik bideratzen omen dute BPGaren portzentaje txikiago bat osasunera). Zehazki, 2012ko urtealdian, EAEn BPGaren %5 bideratu zen osasunera, hau da, BPGaren 1,7 puntu gutxiago ELGEko herrialdeek batez beste bideratzen dutena baino (BPGaren %6,7); hots, 1.141,7 milioi euro gutxiago.

Nafarroan egoera antzekoa da, 2012an % 5,1 izan baitzen osasunera bideratutako gastua, hau da, 1,6 puntu gutxiago ELGEko herrialdeen batez bestekoa baino. Hau da, 294,1 milioi euro gehiago gastatu behar izango ziren batez beste izandako gastua berdintzeko.

Deigarria da Espainiako Estatuak berak BPGaren portzentaje handiagoa bideratzea osasunera; BPGaren %6,9 2012an, hau da, proportzioan 1.270 milioi euro gehiago EAEk baino, eta 330,8 milioi euro gehiago, Nafarroak baino. Era berean, interesgarria da ikustea Grezia edo Portugal bezalako Estatuak ere (BPGaren %6,2) beren BPGaren portzentaje handiagoa bideratzen dutela osasunera.





Iturriak: ELGE, Eusko Jaurlaritza, Eustat, Nafarroako Gobernua, IEN

### 1.3. ELGEko gasturik txikiena hezkuntzan

Osasunean gertatzen den bezala, hezkuntzan egiten den gastu publikoa inguruko herrialdeetako gastuaren batez bestekoaren oso azpitik dago. Zehazki, ELGEko herrialdeen hezkuntza arloko gastu publikoa BPGaren %5,6 izan zen batez beste 2011n (eskura dagoen azken datua). Horrek esan nahi du, 1,7 puntuko aldea dagoela HEHrekin, urte hartan HEHn BPGaren %3,9 gastatu baitzen hezkuntzan. Bestela ikusita, HEHn %43,6 handitu beharko litzateke hezkuntza arloko gastu publikoa ELGEren batez bestekoa berdintzeko.


Horrek guztiak eraginda, HEH azken tokian dago ELGEko herrialdeen artean hezkuntza arloko gastu publikoari dagokionez, eta nazioarte hurbilean inon ere ez da gastatzen hemen baino gutxiago.

ELGEko herrialdeen eta EAEn hezkuntza arloko gastuaren aldea BPGaren 1,6 puntu da. Horrek esan nahi du, ELGEen adinako ahalegina egiteko, Eusko Jaurlaritzak 1.090,1 milioi euro gehiago gastatu beharko lituzkeela.

Nafarroan egoera are kezkarriagoa da. Hezkuntza arloko gastua BPGaren %3,4 izan zen 2011n, hau da, ELGEren batez bestekoa baino 2,2 puntu gutxiago. Horrek esan nahi du, ELGEko herrialdeen batez bestekoa berdintzeko, hezkuntzan %64,7 gehiago gastatu beharko litzatekeela. Aldea, beraz, 414 milioi eurokoa da.

Berriz ere deigarria zaigu Espainiako Estatuak berak (BPGaren %4,8 2011n) Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak baino gehiago gastatzea hezkuntzan: hurrenez hurren, 557,8 milioi euro gehiago 2011n eta 263,5 milioi euro gehiago 2011n.

### Hezkuntza arloko gastu publikoa (%/BPG). ELGE, 2011



Iturriak: ELGE, Eusko Jaurlaritzak, Eustat, Nafarroako Gobernuak, IEN

### 2.1. Zerga politika aldatzeari uko egitea eta aurrekontu diziplina onartzea

Aurretik hartutako bi erabaki politikok baldintzatua dago Eusko Jaurlaritzaren 2015eko aurrekontua. Batetik 3 Foru Aldundiek (EAJK, PPK eta EH Bilduk gobernatuak) eta Eusko Jaurlaritzak aurtengo Euskal Finantzen Kontseiluan diru-bilketarako hitzartu dituzten aurreikuspenak. Bestetik, Eusko Jaurlaritzaren eta Rajoyren Gobernuaren artean egindako akordioa, defizit publikoa 2014an BPGaren %1 izatetik 2015ean %0,7 izatera murriztu dadin.

Euskal Finantzen Kontseiluaren akordioaren arabera, datorren urtean 2014an baino 680 milioi gehiago biltzea aurreikusita dago EAEn (horietatik 300 BEZatik). Dirutza hori administrazio guztien artean banatu beharra dago. Diru-bilketa arloko aurreikuspen horiek ez dira inola ere nahikoak; beraz, azken urteotako aurrekontu politika berberak aplikatzera kondenatu gaituzte, murrizketa esparru batean.

Aurreikuspen horiek ikusita, gainera, argi dago uko egin diotela egungoaz bestelako zerga politika bat jorratzeari. Sinistarazi nahi digute baliabide publikoak aldagaitzak direla, baina baliabide publikoak daude zerga arloan hartzen diren erabakien mendean. EAeko zerga politikak iruzur fiskal izugarria ahalbidetzen du, eta goi errenta, enpresa eta kapitalarentzako zergak apalak dira. Horrek baliabide publikoen maila hondatu eta zerga araubide bidegabea betikotzen du. Europar Batasunaren azken tokian gaude presio fiskalari dagokionez, eta horrek zuzeneko lotura du hainbat arlotan egiten den gastu maila apalarekin, hala nola osasunean, hezkuntzan, gizarte laguntzetan, etxebizitzan, gizarte zerbitzuetan, etab.

Bestalde, Urkulluk defizit publikoa 2015ean murriztea hitzartu zuen Rajoyrekin BPGaren %1etik %7ra. Horrek esan nahi du 200 milioi euro gutxiago izango dela eskura gastatzeko.

Zerga politika aldatzeari uko egitea eta Espainiako Gobernuak aurrekontu diziplinaren arloan hartzen dituen erabakiak onartzea dira aurrekontu horren esparrua. Bi aukera horiek zalantzan jarri behar dira. Eztabaidak ez du izan behar dugun dirua zertan gastatu, baizik eta ditugun beharrez hitz egin behar da eta behar horiek nola finantzatu.

### 2.2. Behera egin du eusko jaurlaritzaren ekonomia arloko gastu publikoaren pisuak

Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuaren gastua 10.288,4 milioi eurokoa da (hau da Jaurlaritzak aurkezturiko 10.639 milioi euroko dirutzari 350,5 milioi euro kendu behar zaizkio, hots, diru hori Eusko Jaurlaritzak aurreratu du abiadura handiko trena eraikitzeko, baina ondotik Espainiako Gobernuak itzuliko du).

Dirutza hori BPGaren %15 da. Horrek esan nahi du Eusko Jaurlaritzak 15 euro gastatuko dituela Euskal Autonomia Erkidegoan sortutako 100 euro bakoitzeko. Gastua BPGarekiko neurtzeak aukera ematen digu Eusko Jaurlaritzaren gastua nola bilakatzen den aztertzeko, ekonomiaren bilakaera kontuan hartuta, eta horregatik du horrek interes berezia gobernuak gastu publikoaren arloan zer-nolako ahalegina egin duen neurtzerakoan.

Azken urteotan, Eusko Jaurlaritzak gastu publikoa murriztearen aldeko apustua egin du. Egungo krisi ekonomikoren urteei erreparatuta, hau da, krisiaren efektua kenduta, eusko jaurlaritzak gastu publikoa murrizten jarraitu du, krisiaren argudioa erabilita. Zehazki, gastu publikoa BPGaren %15,5 izan zen 2009an, eta, %15, aldiz, 2015ean. Horrek zer esan nahi du? Eusko Jaurlaritzak behar baino 327,8 milioi euro gutxiago gastatuko dituela, 2009an egindako ahalegina mantentzeko.

### **Eusko Jaurlaritzaren gastu publikoa (milioika eurotan eta %/BPG). 2009-2015 (\*)**

2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015
10.254,5	10.160,5	9.954,9	9.898,7	9.240,1	9.813,1	10.288,4
% 15,5	% 15,0	% 14,6	% 14,8	% 14,0	% 14,7	% 15,0

(\*) 2009ko urtealdian 50 milioi euro deskontatu dira; 2010ekoan, 167 milioi euro; 2011koan, 218,3 milioi euro; 2012koan, 347,7 milioi euro; 2013koan, 339,3 milioi euro; 2014koan, 350,7 milioi euro, eta 2015ekoan, 350,5 milioi euro. Dirutza horiek, izan ere, Eusko Jaurlaritzak aurreratu ditu abiadura handiko trena eraikitzeko, baina Espainiako Gobernuak kupoaren bidez itzultzen ditu.

*Iturriak: Eusko Jaurlaritza, Eusko Legebiltzarra, Eustat*

Era berean deskontatu beharko lirateke Eusko Jaurlaritzak urtero kupoaren bidez jasotzen dituen dirutzak, enpleguko politika aktiboaren transferentziagatik, baina ez da horri buruzko informazio ofizialik.

BPGa neurtzeko metodologia aldatu denez, txosten hau prestatzeko datan 2009ko BPGaren datua soilik zegoen eskura, metodologia zaharraren arabera neurtua. Beraz, 2009rako, BPG zenbatetsi bat erabili da, oinarri harturik 2010, 2011 eta 2012 urteetako BPGak; horiei buruz eskura dagoen informazioa eguneratua dago.

### **2.3. Osasun arloko gastu publikoa murriztu da**

Aurreikuspenen arabera, Eusko Jaurlaritzak 3.395,8 milioi euro bideratuko ditu osasunera 2015ean; hau da, BPGaren %4,9. Horrek esan nahi du 242,2 milioi euroko murrizketa izan dela 2009aren aldean, urte horretan BPGaren %5,3 bideratu baitzen osasunera.

**Eusko Jaurlaritzaren osasun arloko gastu publikoa  
(milioika eurotan eta%/BPG). 2009-2015**

2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015
3.508,9	3.542,3	3.415,8	3.365,4	3.300,0	3.339,9	3.395,8
% 5,3	% 5,2	% 5,0	% 5,0	% 5,0	% 5,0	% 4,9

*Iturriak: Eusko Jaurlaritza, Eusko Legebiltzarra, Eustat*

**2.4. Hezkuntza arloko gastu publikoa jaitsi da**

Aurrekontuetan 2.566,9 milioi euroko gastua dago hezkuntzarako; hau da, BPGaren %3,7. Horrek esan nahi du, 0,5 puntu jaitsi dela 2009ko BPGrekiko, hau da, 362 milioi gutxiago.

**Eusko Jaurlaritza: hezkuntza arloko gastua  
(milioika eurotan eta %/BPG). 2009-2015**

2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015
2.824,1	2.783,6	2.715,6	2.625,1	2.462,1	2.562,6	2.566,9
% 4,3	% 4,1	% 4,0	% 3,9	% 3,7	% 3,8	% 3,7


(\*) 2013ko urtealdian, Hezkuntza Saileko egitura aldatu zen; hau da, Sail hartan Hizkuntza Politika eta Kultura sartu ziren. Seriearen bilakaera homogenea aztertze aldera, arlo horiei dagozkien kontu-sailak deskontatu dira urtealdi horietarako.

*Iturriak: Eusko Jaurlaritza, Eusko Legebiltzarra, Eustat*

Grafikoan ageri da Eusko Jaurlaritzaren hezkuntza arloko gastu publikoaren murrizketak hezkuntza tarte guztietan izan duela eragina:

- Haur eta lehen hezkuntzarako, aurrekontuan 910,9 milioi euro ageri dira; BPGaren %1,33. Horrek esan nahi du 228,5 milioi euroko jaitsiera izan dela 2009ko urtealdiaren aldean.
- Aurrekontuan 907,5 milioi euro bideratu dira bigarren hezkuntzarako eta Lanbide Heziketarako, hau da, BPGaren %1,32. Jaitsiera 122,7 milioi eurokoa izan da 2009aren aldean.
- Unibertsitaterako kontu-saila 313,1 milioi eurokoa da, hau da, BPGaren %0,46. Jaitsiera 68,6 milioi eurokoa izan da duela 6 urtekoaren aldean.

### Eusko Jaurlaritza: hezkuntza arloko gastu publikoa hezkuntza tarteen arabera (%/BPG). 2009-2015



Iturriak: Eusko Jaurlaritza, Eusko Legebiltzarra, Eustat

### 2.5. Etxebizitza arloko gastua amildu da

Etxebizitza Sailera 106,9 milioi euro bideratu dira aurrekontuetan, hau da, 2009tik hona izandako kontu-sailik apalena (salbuespena, 2014ko urtealdia izango litzateke, zenbaki hori oraindik ere itxierako aurreikuspena baita). Izan ere, diru kopurua erdira jaitsi da. Horrela, 2009ko urtealdian, BPGaren %0,33 bideratu zen etxebizitzara; 2015ekoan, aldiz, BPGaren %0,16. Horrek esan nahi du 118,2 miliokiko jaitsiera izan dela. Hau da, Eusko Jaurlaritzak 2009an eutsi izatekotan etxebizitzan egindako ahaleginari, Sail horrek 118,2 milioi euro gehiago izan zitzakeen gastatzeko. Hots, aurrekontuetan ageri den kopuruaren halako bi baino gehiago.

### Eusko Jaurlaritzaren etxebizitza arloko gastu publikoa (milioika eurotan eta%/BPG). 2009-2015

2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015
217,39	182,56	123,00	146,16	125,65	97,42	106,90
%0,33	%0,27	%0,18	%0,22	%0,19	%0,15	%0,16

Iturriak: Eusko Jaurlaritza, Eusko Legebiltzarra, Eustat

## 2.6. Gizarteratze gutxiago eta bateragarritasun gutxiago

Eusko Jaurlaritzak gizarte premiei buruzko inkesta egin du, 2014koa, eta garbi erakusten du pobrezia gora egin duela nabarmen EAEn. Adibide bat emateagatik, 248.000 lagun leudeke benetako ongizaterik ezean 2014an. Hau da, 2008an baino %41 gehiago, hots, biztanleriaren %11,5.

Inkesta horrek berak dio jende gehiago dagoela pobrezia arriskuan eta gero eta jende gehiagok ez duela sarbiderik prestazio sisteman. Horrenbestez, horrek agerian jartzen du gizartea babesteko sistematik kanpo dagoela beharrean dagoen gero eta jende gehiago.

Zer egiten du Eusko Jaurlaritzak drama sozial horren aurrean? 2015erako aurrekontuan:

- Diru prestazio guztien zenbatekoren % 7ko murrizketari eutsi dio (RGI barne). Murrizketa hori Patxi Lópezen gobernuak onetsi zuen, eta aurrekontuetan urtez urte berritu da.
- 22 milioi euroko kontu-sail bat dago jaso Gizarte Larrialdietako Laguntzerako (AES). 1,5 milioi euroko igoera aurrerapausoa izan dela esatea iraingarria da, pobrezia gora egin duen honetan. Beste behin ere, eta erabaki hori aldatu ezean, Gizarte Larrialdietako Laguntzarako kontu-saila 7 hilabetez agortuko da, eta ondotik izango diren beharrak bete gabe geldituko dira.
- Diru-sarreraren Berme Errentak eta Etxebizitzako Prestazio Osagarriak 461 milioi euroko kontu-saila dute, 2014rako itxierarako zenbatetsitako zenbakiaren antzekoa.

Begi-bistakoa da gizarte prestazioen zenbatekoa hobetu beharra dagoela eta sarbidea izan beharko luketela aipatu prestazioetatik kanpo gelditu diren taldeek.

Bateragarritasunaren aldeko laguntzak ere % 7 murriztu dira, eta AESen kasuan bezala, eskubidea ez denez, kontu-sailak nabarmen murriztu zaizkie. Taulan ageri da kontu-sail hori nabarmen jaitsi egin dela 2012tik 2013ra; 37,2 milioi eurotik 19,2 milioi eurora, hain zuzen, eta Eusko Jaurlaritzak urtealdi horretako ordainketa batzuk atzeratzeko erabakia hartu zuen. 2014rako kontu-saila 2013koa baino are txikiagoa izan zen. Beraz, urtealdi horretako atzerapenei 2013koak gehitu zitzaizkien. 2015erako kontu-saila 30 milioi euroraino igo da, baina dirutza hori hein handian erabiliko da aurreko bi urtealdietan izaniko atzerapenak ordaintzeko. Gainera, kontu-sailak 2012ko 37,2 milioi euroko kontu-saila baino txikiagoa izaten jarraitzen du.

### Eusko Jaurlaritzaren bateragarritasun arloko gastu publikoa (milioika eurotan). 2012-2015\*

2012	2013	2014	2015
37,2	19,2	17,1	30,0

(\*) Ez dugu atal honi buruzko informazio zehatzik 2012ko eta 2013ko urtealdietarako. Beraz, zenbatekoak kalkulatzeko, oinarri hartu da zer portzentaje jotzen duten bateragarritasunaren aldeko laguntzek familientzako transferentzietan, 2015eko aurrekontuetan. 2014ko eta 2015eko zenbatekoak aurrekontu proiektuei dagozkie.

*Iturriak: Eusko Jaurlaritza*

Zer frogatu du Eusko Jaurlaritzak jokabide horrekin? Bat datorrela bateragarritasunean egiten duen politika diskurtsoarekin, aurrekontuetan bizkarra eman baitio arlo horri. Horri eranstean badiogu ez dela estaldurarik haurrak eta adinekoak zaintzeko, panorama samingarria da benetan.

#### 2.7. AHT, murrizketen artean salbuespena

2015eko aurrekontutan, 350,5 milioi euroko kontu-saila dago jasoa AHTrentzat. Eusko Jaurlaritzak zenbateko hori aurreratuko du azpiegitura hori eraikitzeko, baina Espainiako Gobernuak gero itzuliko dio. Kontu-saila BPGaren %0,51 da, hau da, 276,5 milioi euroko igoera izan du 2009ko urtealdiaren aldean. AHT, beraz, salbuespena izan da arloz arlo oro har izan den murrizketen artean.

### Eusko Jaurlaritzaren eta espainiako gobernuaren gastu publikoa AHTean (milioika eurotan eta%/BPG). 2009-2015

	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015
Finantz. Propioa	21,5	20,1	29,1	29,1	23,0	0,0	0,0
Kredituak G.	50,0	167,0	218,3	347,7	339,3	350,7	350,5
Guztira	71,5	187,1	247,4	376,8	362,3	350,7	350,5
%/BPG	%0,11	%0,28	%0,36	%0,56	%0,55	%0,52	%0,51

*Iturriak: Eusko Jaurlaritza, Eusko Legebiltzarra, Eustat*

#### 2.8. EAE: ondorioak

2009ko eta 2015eko urtealdien artean, 900 milioi eurotan igo da Eusko Jaurlaritzak zor publikoan gastatuko duen dirua. Epealdi horretan bertan, 722 milioi euroko murrizketak egin dira osasunean (242 milioi), hezkuntzan (362 milioi) eta etxebizitzan (188 milioi), BPGarekiko. Datuek gezurtatu dute Gobernu behin eta berriz esaten ari dena Hau da, murrizketak ez direla



aplikatzen ari. Aplikatzen ari dira eta horren ondorioz, osasun edo hezkuntza arloko sistema publikoen kalitateak behera egin du. Gora egin dute, aldiz, pobrezia eta gizarte babesik ezak.

Zorra handitu izan ez balitz, 900 milioi horiek aski ziratekeen Eusko Jaurlaritzaren osasun, hezkuntza eta etxebizitza arloko murrizketak eragozteko (aipatutako 722 milioi horiek), eta oraindik ere dirua sobran zegokeen, adibidez bateragarritasunaren inguruko diru-laguntzei aurre egiteko, edo gizarte kanporaketaren aurkako politika espantsiboa egiteko, eta ez murrizkorra, egungoa bezalakoa.

Eusko Jaurlaritzaren zorraren sorburua zerga politika bidegabea izan da, politika horren ondorioz baliabide publikoak gainbehera etorri baitira. Beraz, beharrezkoa da zorraren zilegitasunari buruzko gogoeta egitea, bai eta haren itzulketari buruzkoa ere.

Baina Eusko Jaurlaritzaren murrizketak ez daude soilik zorra handitu izanarekin lotuta. Izan ere, gastu publikoa 1.200 milioi eurotan murriztu da, 2009ko urtealditik hona. Hau da, zorraren ordainketa alde batera utzita, Eusko Jaurlaritzak 300 milioi eurotan murriztu du gastu publikoa.

Foru Ogasunek, gainera, 5.585 milioi euro biltzeari utziko diote 2015ean, gastu fiskalengatik. Horrek esan nahi du progresibotasun zalantzarreko desgrabazio mota, salbuespen, etab. horiek aplikatuko ez balira, diru-sarrerak egungoak baino %56 handiagoak izan litezkeela.

Horrenbestez, baliabide publikorik eza, gastu soziala murriztea bezala, aukera politikoa da. Hots, Eusko Jaurlaritzak, EAeko Foru Ogasunekin batera (EAJK, EH Bilduk eta PPK gobernatuak) egin duen hautua.

Jarrera politiko hori are larriagoa da egungoa bezalako abagune ekonomikoan, inoiz baino beharrezkoagoak baitira presio fiskal handiagoa eta gastu sozial handiagoa.

Beraz, ezinbestekoa da aurrekontu politika eta zerga politika errotik aldatzea.

### **3. NAFARROAKO AURREKONTU PROIEKTUA**

#### **3.1. Aurrekontuak berriz ere luzatuak**

Nafarroako Gobernuak ez du aurrekontu proiekturik onestea lortu 2012tik hona. Beraz, 2012ko aurrekontu luzatuak izan du indarra 2013an eta 2014an.

Beste behin ere, Nafarroako Gobernuak ez da gauza izan 2015eko aurrekontua aurrera ateratzeko. Horrek esan nahi du berriz ere luzatu dela 2012ko aurrekontua, baino oraingo honetan 2015erako.

- Aurrekontu luzatuak izanik ere, murrizketek bere horretan dira eta aurrekontua aldatu da.

Indarrean dauden aurrekontuak 2012az geroztik luzatuak badaude ere, horrek ez du esan nahi aldatu ez direnik. Horrela, ikusten da Nafarroako Gobernuak aurrekontua aldatu egin duela, eta askotan murriztu, bere irizpidearen eta lehentasun politikoaren arabera.

Hortaz, Aurrekontu Aurreproiektua onesten ez bada ere, proiektuak erreferentzia gisa balio du Nafarroako Gobernuaren asmoen berri izateko, Aurrekontu Proiektua hurbiltzen baita azkenean egiazki egiten den gastura.

2015eko proiektuan ere hori gertatzen da, eta agerian dago kontu-sail jakin batzuk murriztu egin direla. Honakoak nabarmenduko ditugu: hezkuntzako gastuan jantokietara bideratutako gastua murriztu da, bai eta eskola garraioa, euskararentzako diruak, edota unibertsitatea ere (aldiz, 6,5 milioitan igo dira irakaskuntza pribaturako diru-laguntzak; %5,2). Osasuneko gastua ere murriztu da, hala nola lehen laguntza edota laguntza espezializatua. Halaber, bestelako gastuak murriztu dira: ingurumeneko kudeaketa, nazioarteko lankidetzak edota zerbitzu pertsonalei arreta egiteko laguntzak.

#### **Aurrekontuetako murrizketak kontu-sailen arabera (milioika eurotan eta %)**

	2012	2015	Aldea	
			euro	%
Eskola jantokiak	3,2	3,0	-0,2	-5,8
Eskola garraioa	14,0	13,4	-0,6	-4,4
Euskara	0,12	0,08	-0,0	-58,4
Unibertsitateak, kalitatea eta prestakuntza	57,1	56,5	-0,6	-1,1
Osasun Departamentua	941,4	934,4	-7,0	-0,7
Laguntza espezializatua	499,9	495,4	-4,5	-0,9
Lehen laguntza	280,9	272,1	-8,8	-3,2
Ingurumena kudeatzea	22,0	17,7	-4,3	-24,5
Garapenaren aldeko nazioarteko lankidetzak	10,2	1,9	-8,2	-430,8
Zerbitzu pertsonalei arreta egiteko laguntzak	22,8	18,1	-4,8	-26,3

*Iturria: Nafarroako Gobernua*

### **3.2. Gobernuak murrizketei eutsi egin nahi die**

2015erako Aurrekontu Proiektuak 3.797,3 milioi euroko gastua aurreikusi du. Hala ere, gastu horretan sarturik daude Abiadura Handiko Trenera (AHT) bideratutako diren 47,9 milioiak, eta teoriarik behintzat, Madrilgo Gobernuak itzuliko dituenak. Hortaz, ez dira egiazko gastuak Nafarroako

Gobernuarentzat. Horrela, 2015erako aurrekontu gastua 3.749,4 milioi euro da.

Gastuaren bilakaera aztertzen badugu euro kopuruaren arabera, 2015erako aurrekontua % 1,8 gutxiago da 2014ko itxiera aurreikuspena baino (3.816,8 milioi euro), eta % 5,7 txikiagoa 2010ean egindako gastua baino (3.974,2 milioi).

### Nafarroako gobernuaren gastu publikoa \* (milioika eurotan)

2010	2011	2012	2013	2014**	2015**
3.974,2	3.656,3	3.611,8	3.650,5	3.816,8	3.749,4

(\*) AHTrako kontu-sailak urtealdi guztietarako deskontatu dira, dirutza horiek guztiak Madrilgo Gobernuak itzultzen dituelakoan; beraz, ez dira egiazko gastuak nafar Gobernuarentzat.

(\*\*)2014 eta 2015eko datuak 2014ko aurrekontu bateratutik datoz eta 2015eko Aurrekontu Proiektutik. Gainerakoa gastu gauzatua da.

### Iturriak: Nafarroako Gobernua, IEN

2010eko eta 2011ko urtealdietarako, deskontatu egin dira ere urte haietan gastuaren barruan zenbatu ziren gastu fiskalak, baina egia esan ez dira. Izan ere, Nafarroako Gobernuak ez ditu egiazki kontu-sail horiek dirutan bildu.

Proiektuan 2015erako dagoen gastua aztertzen badugu BPGarekiko, ikusiko dugu bilakaera negatiboa dela. 2015ean aurreikusitako gastua BPGaren % 20 da, hau da, 0,8 puntu gutxiago 2014ko aurrekontuan baino (141 milioi gutxiago) eta 1,5 puntu gutxiago 2010ekoa baino (265,7 milioi gutxiago).

Gainera, kontuan hartu behar da 2014ko eta 2015eko urtealdiei dagozkien datuak 2014ko itxiera aurreikuspenetik datozela, bai eta 2015eko Aurrekontu Proiektutik ere. Beraz, egiazko gastua aldatuko da, eta azken urteotan zer gertatu zen kontuan hartuta, egiazko gastua aurrekontuetan jaso dagoena baino txikiagoa izango da.

### Nafarroako gobernuaren gastu publikoa\* (%/BPG)

2010	2011	2012	2013	2014**	2015**
21,5	19,4	19,7	20,2	20,8	20,0


### Iturriak: Nafarroako Gobernua, IEN

### 3.3. Ekonomiaren bilakaera eta murrizketak

Ekonomiaren bilakaera ez da gastu publikoaren eta aurrekontuen bilakaera berbera. Gastu publikoa %5,7 murriztu da 2010etik 2015era; epealdi berean, aldiz, BPG %1,1 igo egin da.

Gastua eta ekonomia bestela bilakatu direla ikusita, indarrrik gabe geratu da Gobernuak erabili ohi duen argudioa murrizketak arrazoitu nahi izateko, murrizketak krisi ekonomikoak eraginda egin behar direla esaten baitu.

#### BPGaren bilakaera (milioika eurotan)



Iturria: IEN

### 3.4. Gastua departamentuz departamentu

Aurrekontu Proiektuan, Gobernuak 1.179,2 milioi euroko kontu-saila bideratu zuen Ekonomiako, Ogasuneko, Industriako eta Enpleguko Departamentura Hots, departamentuen arteko dirutzarik handiena eta aurrekontu guztiaren herena (%31,4). Osasun Departamentuari, berriz, 934,4 milioi euroko gastua bideratu zitzaion proiektuan, hau da, ia aurrekontuaren laurdena (%24,9), eta Hezkuntzakora, 575,1 milioi euro (%15,3).

Kontu-sail txikieneko Departamentua Kultura, Turismo eta Erakunde Harremanetakoa da (41,5 milioi; %1,1); gero, Sustapen Departamentua, behin AHTren gastuak kendurik (216,1 milioi; %5,8) eta Gizarte Politiketakoa (258,1 milioi; %6,9).

### Gastua departamentuen arabera (milioika eurotan, % PIB)

	Aurrekontu Pr.	%Guztia	% BPG
Ekonomia, Ogasuna, Industria eta Enplegua	1.179,2	% 31,4	% 6,3
Osasuna	934,4	% 24,9	% 5,0
Hezkuntza	575,1	% 15,3	% 3,1
Landa Garapena, Ingurumen eta Tokiko Ad.	307,6	% 8,2	% 1,6
Lehendakaritza, Justizia eta Barne	268,8	% 7,2	% 1,4
Gizarte Politikak	258,1	% 6,9	% 1,4
Sustapena	216,1	% 5,8	% 1,2
Kultura, Turismoa eta Erakunde Harremanak	41,5	% 1,1	% 0,2
Nafarroako Parlamentua	16,0	% 0,4	% 0,1
Nafarroako Kontseilua	0,4	% 0,0	% 0,0
<b>Guztira (AHTik gabe)</b>	<b>3.749,4</b>	<b>% 100</b>	<b>% 20,0</b>

*Iturria: Nafarroako Gobernua*

### 3.5. Osasun arloko gastua

2015erako Aurrekontu Proiektuak 933,7 milioi euroko gastua jaso du; hau da, 2014ko itxierako aurreikuspenak baino 37,3 milioi gehiago. BPGren %5 da; 2014an baino 0,1 puntu gehiago.

Hala ere, 2010etik hona, osasun publikora bideratu den gastuak izugarritzko jaitsiera izan du. 2015erako, 102,4 milioi euro gutxiago jaso dira aurrekontuan 2010ean egindako gastua baino (1.036,1 milioikoa baitzen), hau da, %9,9 jaitsi da.

### Osasun arloko gastua (milioika eurotan) 2010-2015

2010	2011	2012	2013	2014*	2015*
1.036,1	951,1	941,4	891,8	896,4	933,7

*Iturria: Nafarroako Gobernua*

Osasunera bideratu den dirua kontu-sailen arabera aztertzen badugu, ikusiko dugu 2015ean 495,4 milioi bideratuko direla laguntza espezializatura, eta 272,1 milioi, berriz, lehen laguntzara. Horiek gastuetarako kontu-sail nagusiak dira, baina aipatu behar da 62,3 milioi euro bideratuko direla prestazio eta hitzarmenetara.

2010etik hona, jaitsi egin da gastu publikoa bai hitzarmenetan bai osasun pribatura bideratutako arretetan (2010ean, 77,9 milioi gastatu ziren). Baina 2013tik 2015erako gastuak antzekoa izaten segitzen du, eta are gehiago, 0,4 milioitan igo da 2014tik 2015era. Hala ere, 2010etik 2015era,

aurreikuspenen arabera, 398,8 milioi euro gastatuko dira zentro pribatuekiko hitzarmenetan eta osasun pribatura bideratutako arretetan.

### 3.6. Hezkuntza arloko gastu publikoa

2015ean, 575,7 milioi euroko gastua aurreikusia dago hezkuntzarako, ia 2014an adina (1,3 milioi euro gehiago). 2010etik hona izaniko bilakaerari erreparatzen badiogu, ordea, ohartuko gara murrizketa nabarmena izan dela. Hots, 2015erako kontu-sailetan 92,4 milioi gutxiago ageri dira 2010ekoetan baino, 6 urtean %13,8 murriztu da.

#### Hezkuntza arloko gastu publikoa (milioika eurotan) 2010-2015

2010	2011	2012	2013	2014*	2015*
668,1	634,7	553,6	563,2	574,4	575,7


*Iturria: Nafarroako Gobernua*

BPGrekiko gastua aztertzen badugu, 2015erako aurrekontua BPGaren %3,1 da, 2014an bezala. Hala ere, 2010etik hona, hezkuntzaren pisua BPGaren %0,5 murriztu da. 2015ek BPGean 2010eko adinako pisua izatera, 93,5 milioi euro gehiago gastatuko lirateke.

Hezkuntzarako aurrekontuaren zati handi bat ikastetxe pribatuak diruz laguntzeko erabiltzen da. Zehazki, 575,1 milioiko dirutzatik 123,7 milioi euro xede horretara bideratuko dira, hau da, %21,5. Beraz, 2010aren aldean, 2015ean hezkuntzara bideratu diren 1,3 milioi gehiago horietatik 0,7 milioi dagozkio ikastetxe pribatuak diruz laguntzeko igo den gastuari (123 milioitik 123,7 milioira). Hau da, hezkuntzarako gastua 1,3 miliotan igo bada ere, igoeraren 0,7 milioi ikastetxe pribatuetara bideratu dira.

Bilakaerak, gainera, ederki erakusten du gero eta diru gehiago bideratzen dela ikastetxe pribatuetara. Zehazki, 2010etik 2015era, gastu hori 2,1 milioi eurotan igo da (121,6 milioitik 123,7ra). Gastu igoera hori handia ez bada ere, garrantzitsua da; izan ere, epealdi berean 92,4 milioitan jaitsi da hezkuntzara bideratu den gastu osoa. Hau da, 2010ean, 546,5 milioi euro bideratu ziren hezkuntzara, ikastetxe pribatuetarako diru-laguntzak alde batera utzita, eta 2015ean, berriz, 452 milioi, hau da, 94,5 milioi euro gutxiago; %17,3.

### Hezkuntza arloko gastua eta irakaskuntza pribatuarentzako diru-laguntzak (milioika eurotan) 2010-2015



Iturria: Nafarroako Gobernua

### 3.7. Gastua AHTean

Nafarroako Gobernuak eutsi egin dio AHT egiteari. 2015erako, 47,9 milioi euroko gastua dago aurreikusia. 2014. urtearen aldean, gastua 54,4 milioitan jaitsi bada ere, 2010etik hona guztira 292,9 milioi euro gastatu dira.

#### Gastua AHTean (milioika eurotan) 2010-2015

	2015	2014	2013	2012	2011	2010
Guztira	47,9	102,3	29,2	17,1	1,4	5,1

Iturria: Nafarroako Gobernua

### 3.8. Gizarte politika

Gizarte babesean gastatzea ez da Nafarroako Gobernuaren lehentasuna. Horren erakusgarri, Gizarteratze Errentarako kontu-saila (37 milioi euro 2015ean) 9,9 milioi gutxiagoz dago hornitua 2014an baino (46,9 milioi euro).

2010etik hona izaniko bilakaeraren arabera, gastua 6,2 milioitan igo da (30,8 milioitik 37ra). Hala ere, kontuan hartu behar da pobrezia igoera izugarria izan dela.

**Gastua gizarteratzea errentan (milioika eurotan) 2010-2015**

	2015	2014	2013	2012	2011	2010
Gizarteratze Errenta	37,0	46,9	39,4	31,5	35,9	30,8

*Iturria: Nafarroako Gobernua*

Gastu guztien artean, zor publikoak izan du igoerarik handienetakoa. Horrela, funtsezko gastuak murriztu bidenabar 436,4 milioi euro publiko bideratuko dira 2015ean zorra ordaintzera, hau da, 2014an baino 46,9 milioi gehiago (% 12 gehiago). 2010az geroztik, gastu hori 292,3 miliotan igo da (144,1 milioitik 436,4 milioira), hau da, % 202,8 igo da. Horrela, zor publikoa gastu guztiaren % 3,4 izatetik (2010) % 11,6 izatera igaro da 2015ean.

Gastu hori BPGaren % 2,3 da 2015ean, hau da, 2014an baino 0,2 puntu gehiago, eta 2010ean baino 1,5 puntu gehiago.

**Gastua zor publikoan (milioika eurotan) 2010-2015**

2010	2011	2012	2013	2014	2015
144,1	148,1	199,4	299,4	389,5	436,4
0,8%	0,8%	1,1%	1,7%	2,1%	2,3%

*Iturria: Nafarroako Gobernua, IEN*

**3.9. Nafarroako 2015eko aurrekontu proiektua: balorazioa**

Aurrekontuaren Aurreproiektuak porrot egindako politiken bideari lotuta jarraitzen du, politika horiek eragin baitute egungo hondamen soziala:

- Murrizketek bere horretan dira. Aurreproiektu honek murrizketa gehiago eragiteaz gain, gizarte babesgabetasun eta pobrezia handiagoa eragingo du.
- Egunez egun ari da okertzen osasun, hezkuntza, gizarte zerbitzu eta beste arlo batzuetako sistema publikoen kalitatea. Egoera horren aurrean, Nafarroako Gobernuak politika neoliberalak egiten jarraitu nahi du, murrizketak egiten segitu nahi duen bezala. Hain zuzen ere, politika horiek ekarri gaituzte ataka honetara. Aurreproiektuak ez ditu arazo horiek konpontzen; areagotu egingo ditu.
- Gastu soziala behera joan da, eta gero eta gastu handiagoa bideratzen da zor publikora. Zorraren sistema guztiz gaiztoa da. Izan ere, Nazioarteko Diru Funtsak (NDF), Munduko Bankuak eta Troikak aginduak ematen dituzte, eta politikariek nahiz agintariek txintik esan gabe obeditzen dute. Zor publikoa ordaintzeari ematen diote



lehentasuna, eta zor hori, jatorrian, pribatua da hein handian. Horrela, herritarrak bihurtu dituzte hartzekodun; horrekin bat, austeritate neurriak inposatzen dituzte, eta horren ondorioz, pobrezia sortu eta zerbitzu publikoak murrizten dira.

- ELAk oso gaitz iritzi dio hala Gobernuak Aurrekontuaren Aurreproiektuaren prestaketan izaniko jokabide guztiz antidemokratikoari, nola edukiari. Eta aurrekontu eta zerga politikak errotik aldatzea exijitzen du, krisiari irtenbide soziala emateko.

## 4. NAFARROAKO ZERGA ERREFORMA

Nafarroan zerga erreformaren inguruan gertatu diren azken gorabeherak agerian utzi dute ez dagoela planifikaziorik eta seriotasunik politika ekonomikoan.

Parlamentuak atzera bota ondoren UPNko Gobernuak aurkeztutako erreforma fiskalerako proposamena, PSNk eta parlamentuko beste talde batzuek bereak aurkeztu zituzten. Hala ere, Parlamentuak erreforma fiskalerako bideratu zuen proposamen bakarra PSNrena izan zen. Proposamen hori bideratu zen, UPNren, PPren eta PSNren beraren botoei esker, eta alderdi horiek berek onetsi zuten. Gainerako alderdiek erreforma fiskalerako aurkezturiko proposamenak atzera bota ziren edota bozkatu aurretik erretiratu.

Onetsitako erreforma fiskalak PFEZa, Ondarearen gaineko Zerga eta Sozietateen gaineko Zerga ukitu ditu.

PSNk, hasieran, jo zuen erreformak 35 milioi euro gutxiago biltzea eragingo zuela. Geroago, Nafarroako Ogasunak esan zuen erreforma fiskalerako proposamen horrek 103,2 milioi euro gutxiago biltzea eragingo zuela, hau da, ia % 200 gehiago, eta PSNk berak erantzun du kostua "25 eta 33 milioi artekoa" izango dela.

### 4.1. Erreforma fiskalaren neurri nagusiak

Hona hemen erreforma fiskalak jaso dituen neurri nagusiak:

#### *PFEZ:*

- Tarteak %3 deflaktatzea
- Aplikatu beharreko tasak murriztea. Aplikatu beharreko tasa guztiak PFEZaren likidazio oinarrira murriztu dira, behekoena izan ezik. Horrela, murrizketarik handiena tasa altuetan izango da (175.000 eurotik aurrera, murrizketa 4 puntukoa da); tarterik apalenetan, ordea, murrizketa puntu erdikoa da.

**PFEZaren tasen murrizketa tarteen arabera (%)**

Likidazio oinarria zenbat eurora arte (euro)	Aplikatu beharreko Tasa 2013	Proposamena	Tasa aldea
	13,0	13,0	0,0
3.940	22,5	22,0	0,5
8.755	25,5	25,0	0,5
18.050	29,5	28,0	1,5
31.730	38,0	36,0	2,0
46.850	42,5	40,0	2,5
55.010	45,0	42,0	3,0
90.640	47,0	45,0	2,0
125.000	49,0	46,0	3,0
175.000	51,0	47,0	4,0
300.000	52,0	48,0	4,0

*Iturria: Nafar Ogasuna, Nafarroako Parlamentua*

- Aurrezki errentei aplikatu beharreko tasen murrizketa. Hiru tarte ezarri dira, eta aplikatu beharreko tasak % 18tik % 24ra bitarte joango dira:

**Aurrezki errentei aplikatu beharreko tasak (%)**

Proposamena	
Likidazio Oinarria (dirutza horretatik hasita)	Karga tasa (%)
<6.000	18,0
6.000-12.000	22,0
>12.000	24,0
2013ean indarrean	
Likidazio Oinarria	Karga tasa (%)
<6.000	20
6.000-24.000	24
>24.000	27

*Iturria: Nafar Ogasuna, Nafarroako Parlamentua*

**Ondarearen gaineko zerga:**

- Gutxieneko salbuetsia 300.000tik 800.000 euroraino igo da.
- Tarifa %20 jaitsi da; eta ondorioztatze metodoaren ordeztu salbuespen metodoa erabiliko da, hau da, orain arte kenkariekin bazen ere, ondasun batzuek zerga ordaintzen zuten, baina aurrerantzean ez.

Hona ondasunak: jarduera ekonomikoetan diharduten entitateetan diren partaidetzak, eta loturiko ondasunak.

*Sozietateen gaineko zerga:*

- Tasa tarte guztietan murriztu da. Tasa orokorra %30etik %24ra murriztu da, hau da, tasa %20 jaitsi zaie 10 milioi eurotik gorako negozioa duten enpresei. Milioi batetik 10 milioira bitarteko fakturazioa duten enpresei % 27tik % 24ra murriztu zaie tasa. Eta milioi bat euro baino gutxiago fakturazten duten enpresei tasa puntu bat jaitsi zaie (%5), %20tik %19ra.

**Sozietateen gaineko zergaren tasak (%)**

	2013	Erreforma	Murrizketa %
Negozioa > 10 milioi	30	24	%20,0
Negozioa milioi bat eta 10 artean	27	24	%11,1
Negozioa < Milioi bat	20	19	%5

*Iturria: Nafarroako Parlamentua*

- Tasa hau apalagoa izango da kooperatiba, lan sozietate, fundazio eta abarretarako (%23 eta %10 artean).
- % 1eko tasa bat ezarri zaie kapital aldakorreko inbertsio sozietateei, finantza izaerako inbertsio funtsei, etab.
- %10eko gutxieneko tasa bat ezarri da. Hala ere, gutxieneko horretatik ordaindu ahalko dute I+G+b arloan inbertsioak egiten dituzten enpresek, eta %7ko gutxieneko bat izango dute enplegu mugagabea sortzen dutenek.

**4.2. Erreforma fiskalaren gaineko balorazioa**

Erreforma fiskal hau erabat da onartezina. Alde batetik, errenta altuei eta kapitalari zergak jaitsi zaizkie, eta zerga sistema bidegabeago baterantz jo da. Bestetik, ez da inolako neurririk hartu iruzur fiskalaren aurka egiteko.

PSNk beste behin ere erakutsi du bere zerga politika UPNrena eta PPrena bezalakoa dela. Hasieran, ez zuen bat egin Barcinaren Gobernuak aurkezturiko proposamenarekin, gai honetan bestelako jarrera izango zuelakoan, baina gerora, PSNk proposaturik onetsitako erreformaren muina berbera da. Hori bai, are kostu handiagoa eragingo du diru-kutxa publikoetarako.

- PSNren erreformaren ondorio nagusia da 103,2 milioi euro gutxiago bilduko direla, Ogasunak emandako datuen arabera. Eta, zergak,

batez ere, errenta altuenei, enpresei eta ondare altuenei jaitsiko zaizkie

- PFEZean, 175.000 eurotik gorako errentek jasoko dute onurarik handiena, eta zerga % 4 jaitsiko zaie. Halaber, aurrezkiaren errenta bereziek tasa orokorraren oso azpitik ordaintzen jarraituko dute, eta tasa 2 eta 3 puntu artean jaitsi zaie.

PFEZren aldaketak 74,6 milioi euro gutxiago biltzea eragingo du.

- Berriz ere, Ondarearen gaineko Zerga jaitsi da, eta tasa guztiak berdin jaitsi dira (%20), eta gutxieneko salbuetsia 800.000 euroraino igo da. Zerga hau nabarmen murriztu da, eta horrela segituz gero, hutsala izango da.

Neurri horiek 18,6 milioiko kostua eragingo dute.

- Sozietateen gaineko Zerga berriz ere murriztu zaie enpresa handiei. Gogoratuko dugu zerga honen diru-bilketa %53,7 jaitsi dela 2008tik hona, eta tasa efektiboa (hau da, egiazki ordaintzen dena) %14,5 dela.

Hala ere, egin den murrizketa erabat doa zergaren progresibotasunaren aurka. Enpresa handienei % 20 jaitsi zaie tasa; 1 eta 10 milioi arteko fakturazioa dutenei %11,1, eta milioi batetik behera fakturatzen dutenei %5.

Kontuan hartu behar da zerga hau etekinen gainean ordaintzen dela, eta galerak hurrengo 15 urtean deduzitu daitezkeela.

Erreforma honek 9,9 milioiko galera eragingo du diru-bilketan.

- Diru gutxiago biltzeak berekin dakar zerbitzu publiko txarragoak eta gizarte estaldura txikiagoa izatea. Erreforma honen ondorioz, murrizketa politikak bere horretan jarraituko du, eta politika horrek ederki okertu du egoera osasunean, hezkuntzan, gizarte zerbitzuetan, pentsioetan, etab. Erreforma, azken finean, gizarte estaldura gehien behar dutenen kontra doa (langabeak, etxegabeak, pentsiodunak...).
- Progresibotasun fiskalaren aurkako neurriak dira, zerga kasik errenta handiei eta enpresei bakarrik jaitsi baitzaie. Horrela, zerga sistema bidegabea areagotu da; diru-bilketa oso apala da (BPGarekin neurtzen badugu, 9,9 puntu gutxiago dira Europako batez bestekoa baino), eta karga fiskalaren zatirik handiena laneko errenten bizkar dago.

Erreforma honen bidez, kapitala gizartearen zati txiki baten eskuetan metatzea sustatu da.

- Ez da iruzur fiskala aipatu. Iruzur fiskalean bere horretan dirau permisibitatearen aldeko hautuak.
- Oso kezkgarria da informazioz eza, bai eta seriotasunik eza ere, planteamenduak egiterakoan; adibidez, erreforma fiskal honen

inguruan. Ogasunaren kalkuluen arabera, 68 milioi euro gehiagoko kostua izango du erreformak PSNren hasierako kalkuluen aldean.

ELAk ohartarazi nahi du informaziorik ezak, edota informazio okerrak, eragotzi egiten duela egiazko eztabaida bat gizartean, fiskalitatea bezalako gai garrantzitsu baten inguruan.

Erabat da antidemokratikoa gardentasunik, informaziorik eta seriotasunik handiagoa ez izatea gizartea ukitzen duten gaiez aritzean.

- Agerian dago langabezia tasarik handiena duten lurraldeak direla zerga karga txikiena dutenak. Era berean, soldatarik handienak dituzten tokietan eta aberastasuna era bidezkoenean banaturik dauden lekuetan, gora egiten du produktuen nahiz zerbitzuen eskariak, eta enplegua sortzen da.
- Azkenik, ELAk gogora ekarri nahi du joan den irailean egin zituela fiskalitateari buruzko bere proposamenak, eta deitoratzen du talde politikoen artean ezein taldek haiekin bat ez egitea.

